

Erref.: FMR / Legelari aholkularia

GAIA.- GERENTE ANDREAREN 2020KO MARTXOAREN 16KO EBAZPENA, UME ETA NERABEENTZAKO ZERBITZUEN DIBISIOARI APLIKATZEKO GOBERNU BATZAREN ERABAKIA, COVID-19 KORONABIRUSAREN ONDORIOZKO OSASUN-KRISIAN ZEHAR KONTRATAZIOAK EGITEKO DEIEN FORMALIZAZIOARI BURUZKOA.

2020ko martxoaren 7an egindako ez-ohiko bileran (1/20 akta), GUFEn Gobernu Batzak onartu zuen COVID-19 koronabirusak infektatutako kasuak agertzearen ondoriozko osasun-krisia dela-eta langileak kontratatzeako deiak formalizatzeko erabakia. Horretarako, Lan-Poltsak Kudeatzeko Irizpideak aldi batean etenda uztea erabaki zen.

Egun horretatik aurrera, lan-kontratueterako deiak zentro bakoitzerako egin izan dira, gaixotasunaren kutsatzea prebenitzeko eta, hala badagokio, arintzeko, kontuan izanda gure erabiltzaileen zaugarritasun berezia.

Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioko langileak, hasiera batean, kanpo geratu ziren erabaki horretan jasotako aurreikuspenen aplikaziotik. Erabakia, hain zuzen, gertaeren bilakaeraren arabera eta geroraturik aplikatuko zen, eta GUFeko gerenteari berariazko ahalmena eman zitzaion hura aplikatzeko eta egokitzat jotako neurriak ezartzeko.

Hori dela bide, eta kontuan hartuta osasun-agintariek argitaratu dituzten xedapenak, Espainiako eta Euskadiko gobernuek egindako alarma-egoera eta osasun-larrialdiaren egoerei buruzkoak, hurrenez hurren, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko gerenteak

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- GUFEn Gobernu Batzaren 2020ko martxoaren 7ko erabakia aplikatzea Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioko langileei. Erabaki horren bidez, lan-kontratueterako deiak laguntza-zentro bakoitzaren arabera egitea xedatzen da, salbuespen gisa eta behin-behinekoz Hau da, langileei gaur egun lanean ari diren lantokirako deituko zaie aurrerantzean, eta, *ex novo* kontratatutak izan direnei joan diren lantoki horretan lan egiteko deituko zaie aurrerantzean ere.

Ilido berean, Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioan sortzen diren plaza hutsak edo gisakoak ezin izango dira bete bitarteko lan-kontratu bidez; eta, haien orde, behin-behinekoz, zeregin-pilaketako kontratuak egingo dira legez ezarritako gehieneko sei (6) hilabeteko eperako.



Bigarrena.- Ume eta Nerabeentzako Zerbitzuen Dibisioaren kasuan ere etetea Lan-poltsak Kudeatzeko Irizpideak dokumentuan ezarritako erabakien indarraldia, lan-poltsen lehentasun-irizpidearena izan ezik. Etetea osasun-alertak dirauen bitartean mantenduko da.

Hirugarrena.- Erabaki honek beherago adierazitako egunean bertan sortuko ditu ondorioak, GUFren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzen eguna gorabehera..

Bilbon, 2020ko martxoaren 16an.

GERENTEA

A handwritten signature in blue ink, consisting of several overlapping, vertical, slightly curved strokes.

Sin.: Nerea Urien Azpitarte